



**Where  
technology  
is an attitude.**

**EUSKARA PLANAREN LAN-ILDOAK  
ETA ORGANOEN EGITEKOAK**

**2026ko ekaina**

## 1. HELBURUAK

01

IKERLAN barrura begira euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak eta dinamikak sortu eta bultzatzea, eta kanpora begira IKERLANen irudi euskalduna garatu eta zabaltzea.

02

IKERLANen euskara erabiltzeko jarrera positibo eta aktiboa izatea arduradunek eta kontseilariek eta oro har IKERLANeko kide guztiek.

03

Euskararen inguruan IKERLAN bizi eta dinamiko bat izatea.

## 2. EUSKARA PLANAREN LAN-ILDOAK

### ••• Euskaldunen euskararekiko leialtasuna

Hiztunen hizkuntzarekiko leialtasuna da hizkuntza baten bizi-indarraren adierazle nagusietako bat. Euskararen kasuan, euskara dakigunok eta ikasten ari garenok euskaraz eginda lortu behar dugu euskararekiko leialtasuna areagotzea.

Lan-ildo hau garatzeko ardura Kontseilu Sozialarena (KSrena) izango da.

### ••• Eredugarritasuna

IKERLANeko kide guztiok euskararen gaian eredugarri izatea gakoa da euskararen erabilera indartzeko. EPetik bereziki arduradunen, zuzendarien eta organoetako kideen hizkuntza portaera egokiak indartzeko lan egingo da.

Lan-ildo hau garatzeko ardura Batzorde Betearazlearena (BBrena), Zuzendaritza Kontseiluarena (ZKrena) eta KSrena da eta elkarrekin landuko dute.

### ••• Euskararen ulermena orokortzea

Euskaraz lan egin nahi duten IKERLANeko kideek horretarako aukera erreala izan dezaten oinarritzko baldintza da erakundeko eta norbere inguruko lankideek euskara ulertzea. Hori bera nahikoa ez bada ere, ulermena orokortzea hizkuntza baten erabilera bizkortzeko ezinbesteko mugarria da.

Lan-ildo hau garatzeko ardura ZKrena izango da.

### ••• IKERLAN gizartean

Euskal gizartean errotuta dagoen eta gizarteari erantzun nahi dion erakundea garen aldetik, euskara IKERLANen zeinu bereizgarri izan dadin nahi dugu. IKERLANen irudi euskalduna lantzeak enpresa gisa indartzen gaitu, prestigioa ez ezik, irudi dinamiko eta moderno ematen baitigu euskarak. Horretarako, besteak beste ikasle / ikerlartzaile euskaldunak erakartzeko eta ikerketa gaiak eta euskara uztartzeko lan egingo dugu.

Lan-ildo hau garatzeko ardura ZKrena izango da.

## ORGANOEN EGITEKOAK EUSKARA PLANEAN

Organo bakoitzak zehaztuko du zeintzuk izango diren bere egitekoak garatzeko talde gisa martxan jarriko dituen barne-mekanismoak. Gainera, egiteko horiek pertsona zehatzenak barik, organoarenak izango direla bermatzeko, organoa berritzean egiteko edo ardura horiek jarraipena izango dutela bermatu behar du organoak.

### KONTSEILU SOZIALA

| KONTSEILU SOZIALAREN EGITEKOAK EUSKARA PLANEAN |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>EGITEKO OROKORRAK</b>                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara normalizatzeko proiektua zaintzea, eta planari jarraipena egitea eta baloratzea, gainerako organoekin batera.</li> <li>EPeko helburu eta ekintzen zabalkundea egitea, eta kolektiboaren ekarpenak jaso eta bideratzea.</li> <li>IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea KSren bilera eta komunikazioetan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan.</li> </ul> |
| <b>EGITEKO ZEHATZAK</b>                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>“Euskaldunen euskararekiko leialtasuna” lan-ildoak lideratzea eta garatzea.</li> <li>“Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                      |

| EGITEKO OROKORRAK                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Euskara normalizatzeko proiektua zaintzea, eta planari jarraipena egitea eta baloratzea, gainerako organoekin batera. (*)                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| NOLA                                                                                                                                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>KSko bileretan hiru hilero KSk “Euskaldunen euskararekiko leialtasuna” lan-ildoan egiten ari denaren edota egin asmo duenaren berri emango du.</li> <li>KSk EPren balorazio propioa egingo du urtean behin (gainerako organo eta EBrekin batera) eta aurrera begirakoak proposatuko ditu.</li> </ul> |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>“Euskaldunen euskararekiko leialtasuna” lan-ildoaren berri ematea KSren behetik gorako bileretan.</li> </ul>                                                                                                                                                                                         |
| EPeko helburu eta ekintzen zabalkundea egitea, eta kolektiboaren ekarpenak jaso eta bideratzea.                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| NOLA                                                                                                                                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>KSren komunikazioetan EPren berri emango du eta IKERLANeko kideek planean parte hartzea sustatuko du.</li> <li>Kontseilutxoetan EPren berri emango du eta planaz kolektiboak dituen ekarpenak jaso eta bideratuko ditu.</li> </ul>                                                                   |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontseilutxoetan planaren berri ematea urtean hirutan.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                    |
| IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea KSren bilera eta komunikazioetan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan. |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| NOLA                                                                                                                                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>KSko kideen artean IKERLANeko “BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA” betetzeko jarraibideak zabalduko ditu, jarraipena egin eta berauek betetzeko bitartekoak eta laguntzak emango dizkie KSko kideei.</li> </ul>                                                                                    |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>KSren jendaurreko ekitaldietan KSko kideen “BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA”ren betetze maila.</li> </ul>                                                                                                                                                                                       |

| EGITEKO ZEHATZAK                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|----------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| “Euskaldunen euskararekiko leialtasuna” lan-ildoak lideratzea eta garatzea |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| NOLA                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>• KSk organo gisa antolatu ohi dituen ekimenak (Elkarte eguna, hitzaldi eta bestelako ekintzak,...) euskaraz eskaini eta garatu daitezten lan egingo du.</li> <li>• “Euskaldunen euskararekiko leialtasuna” lan-ildoak garatzeko IKERLAN bizirik! lantaldea lideratuko du KSk. Lantalde honen helburua izango da erabilera bultzatzeko ekintza erakargarri eta parte-hartzaileak proposatu eta garatzea KSrekin batera; sentsibilizazio/erabilera kanpainak, tailerrak-mintegiak-hitzaldiak, lehiaketak, irteerak, ...</li> </ul> |
| <b>Jarraipen adierazleak</b>                                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urteko ekintza kopurua.</li> <li>• IKERLANeko kideen parte-hartzea ekintzetan.</li> <li>• Euskararen ahozko erabilera portzentajea (kale neurketak egingo dira).</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| “Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera.        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| NOLA                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>• IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak zehaztuko ditu KSk gainerako organoekin batera.</li> <li>• KSk kideak eredugarri izateko lanketa egingo du KSk talde gisa edo gainerako organoekin batera.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>• KSeko eta Kontseilutxoetako bileretako erabilera (**) eta EPeko gaien kudeaketa.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |

(\*) Organoetan urtean hirutan egingo zaio Euskara Planari jarraipena, urtearen hasieran, erdi aldera eta amaieran. Jarraipenerako deskargu hau EBk sortuko du eta organo bakoitzak bere ardurapeko gaien berri jasoko du bertan.

(\*\*) Kontseilu Sozialak urtero hartuko ditu foro horietan eragiteko erabilera neurriak. Erabilera datu absolutuek gain, foro bakoitzean adostutako erabilera neurri ez kuantitatiboak ere baloratuko dira.

## BATZORDE BETEARAZLEA

| BATZORDE BETEARAZLEAREN EGITEKOAK EUSKARA PLANEAN |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|---------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>EGITEKO OROKORRAK</b>                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskararen Plan Estrategikoaren lanketan parte hartzea eta KEk onar dezan bideratzea.</li> <li>IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak zehazten parte hartzea, KEk onar ditzan bideratzea eta irizpideak bete daitezen jarraipena egitea.</li> <li>EPri jarraipena egitea</li> <li>IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea BBren bilera eta komunikazioetan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan.</li> </ul> |
| <b>EGITEKO ZEHATZAK</b>                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>“Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |

| EGITEKO OROKORRAK                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EPri jarraipena egitea (*)                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <b>NOLA</b>                                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>KEren bileretan EPren deskargua egingo du BBk gutxienez urtean behin.</li> <li>EPren balorazio propioa egingo du urtean behin (gainerako organo eta EBrekin batera) eta aurrera begirakoak proposatuko ditu.</li> </ul> |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>BBren bileretan EPren jarraipenari lekua egin zaion bilera kopurua.</li> </ul>                                                                                                                                          |
| IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea BBren bilera eta komunikazioetan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan. |                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <b>NOLA</b>                                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>BBko kideen artean IKERLANeko “BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA” betetzeko jarraibideak zabalduko ditu, jarraipena egin eta berauek betetzeko bitartekoak eta laguntzak emango dizkie BBko kideei.</li> </ul>       |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>Jendaurreko ekitaldietan BBko kideen “BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA”ren betetze maila.</li> </ul>                                                                                                                |

| EGITEKO ZEHATZAK:                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                 |
|---------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| “Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera. |                                                                                                                                                                                                                                                 |
| NOLA                                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>• IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak zehaztuko ditu BBk gainerako organoekin batera.</li> <li>• BBko kideak eredugarri izateko lanketa egingo du BBk talde gisa edo gainerako organoekin batera.</li> </ul> |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• BBko bileretako erabilera (**) eta EPeko gaien kudeaketa.</li> </ul>                                                                                                                                   |

(\*) Organoetan urtean hirutan egingo zaio Euskara Planari jarraipena, urtearen hasieran, erdi aldera eta amaieran. Jarraipenerako deskargu hau EBk sortuko du eta organo bakoitzak bere ardurapeko gaien berri jasoko du bertan.

(\*\*) Batzorde Betearazleak urtero hartuko ditu bere bileretan eragiteko erabilera neurriak. Erabilera datu absolutuek gain, adostutako erabilera neurri ez kuantitatiboak ere baloratuko dira.

## ZUZENDARITZA KONTSEILUA

| ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN EGITEKOAK EUSKARA PLANEAN |                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>EGITEKO OROKORRAK</b>                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• EPeko helburuak eta jarraibideak kudeaketa sisteman txertatzea.</li> <li>• IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea lerro exekutiboan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan</li> </ul> |
| <b>EGITEKO ZEHATZAK</b>                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara ikasteko eta bere erabilera sustatzeko baliabide ekonomikoak jarri eta aurrekontu horien jarraipena eta kudeaketa egitea.</li> <li>• “Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera.</li> </ul> |

| EGITEKO OROKORRAK                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EPeko helburuak eta jarraibideak kudeaketa sisteman txertatzea                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <b>NOLA</b>                                                                                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urteko kudeaketa planean euskarari dagozkion helburuak txertatuko ditu eta EPri jarraipena egingo dio. (*)</li> <li>• EPren balorazio propioa egingo du urtean behin (gainerako organo eta EBrekin batera) eta aurrera begirakoak proposatuko ditu.</li> </ul>        |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketa planeko helburuen betetze maila.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                 |
| IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak aplikatzea eta betearaztea lerro exekutiboan eta barne nahiz kanpo harreman ofizial / korporatiboetan. |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <b>NOLA</b>                                                                                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lerro exekutiboan IKERLANeko “BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA” betetzeko jarraibideak zabalduko ditu, jarraipena egin eta berauek betetzeko bitartekoak eta laguntzak emango dizkie lerro exekutiboko arduradunei.</li> </ul>                                    |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>                                                                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lerro exekutiboko bileretan (Unitateko bilerak / Ezagutza Alorreko bilerak / Espezializazio lantaldeetako bilerak eta bilera operatiboak)</li> </ul> <p>“BILERA ETA HITZALDIETARAKO IRIZPIDEA”aren betetze maila. &gt;&gt; (inkesta bidez jasoko da informazioa).</p> |

| EGITEKO ZEHATZAK             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                              | Euskara ikasteko eta bere erabilera sustatzeko baliabide ekonomikoak jarri eta aurrekontu horien jarraipena eta kudeaketa egitea.                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| NOLA                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• IKERLANeko pertsona gakoek euskalduntzea bultzatzeko 4 urtera begirako helburuak finkatuko ditu eta urtez urteko jarraipena egingo dio helburuen eboluzioari.</li> <li>• Irizpideen artetik, jarraipena egingo die urteko kontratazioetan eta barne promozio kasuetan lanpostuen hizkuntza eskakizunaren betetze mailari, eta bete daitezkeen neurriak hartuko ditu.</li> </ul> |
| <b>Jarraipen adierazleak</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Formatzen ari diren pertsona gakoek portzentajea.</li> <li>• Kontratazio eta barne promozioetako lanpostuen hizkuntza eskakizunen betetze maila.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                     |
|                              | “Eredugarritasuna” lan-ildoak garatzea gainerako organoekin batera.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| NOLA                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• IKERLANeko Hizkuntza Irizpideak zehaztuko ditu ZK-k gainerako organoekin batera.</li> <li>• ZK-ko kideak eredugarri izateko lanketa egingo du ZK-k talde gisa edo gainerako organoekin batera.</li> </ul>                                                                                                                                                                       |
| <b>Jarraipen adierazlea</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ZK-ko bileretako erabilera (portzentaje absolutuaz gain, adostutako erabilera neurriak ere kontuan hartuta) eta EPeke gaien kudeaketa.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                               |

(\*) Organoetan urtean hirutan egingo zaio Euskara Planari jarraipena, urtearen hasieran, erdi aldera eta amaieran. Jarraipenerako deskargu hau EBk sortuko du eta organo bakoitzak bere ardurapeko gaien berri jasoko du bertan.